

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

549

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 17koa, Trafikoko zuzendariarena, Gidariantzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria lortzeko hautaprobaren deialdia egiten duena.

Urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuak xedatutakoaren babesean, apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuak 17.4.a) artikuluan Trafiko Zuzendaritzari emandako aginpideekin bat, urriaren 17ko 1295/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako Motor Ibilgailuen Gidarien Eskola Partikularrei buruzko Araudiaren 48. artikuluan jasotako eskumenen arabera, hautaprobako deia egiten zaie Gidariantzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria lortu nahi dutenei. Hauek dira oinarriak:

Lehenengoa.– Hautaprobaren erregimena eta Gidariantzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria ematea.

Ebazpen honetan eskatzen zaizkien betekizunak konpliturik izanik, hautaproba honetarako onartzen eta gaitzat hartzen direnek eska dezakete Gidariantzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria ematea.

Bigarrena.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte, onartuak izango badira:

– Eskaera egitea aldeztu aurretik.

– Bide Prestakuntzako Irakaslearen edo Gidariantzako Eskola Partikularretako Irakaslearen Gaitasun Agiria izatea, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik emana, urriaren 17ko 1295/2003 Errege Dekretuaren 47. artikuluan arabera. Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko akordioa sinatu duten beste estatu batzuetan irakasle jardun dutenek agiri bidez egiztatu beharko dute hori, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrira.

– Gidariantzako Eskola Partikularretako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzeko probetan inskribatzeko gastu eta eskubideen tasa ordaindu izana; betiere, hirugarren oinarriaren 3. zenbakiak ezarritakoaren arabera eta irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrira. Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen da.

2.2.– Aurreko apartatuan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte prozeduran parte hartu nahi dutenek, eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen denerako bete ere.

2.3.– Hautaproban onartua izateko eta parte hartzeko, aski izango da eskabidean adieraztea parte hartzeko exijitutako betekizun guzti-guztiak konplitzen dituela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna delarik erreferentzia.

2.4.– Hala ere, hautaproban edo geroztiko izapideetan –dagokion gaitasun-agiria eman arte– jakiten bada hautagairen batek ez duela betetzen eskatutako baldintza bat edo batzuk, edo egiaztatutako ziurtagiritik ondorioztatzen bada eskabideak akatsak edo faltsukeriak dituela, Bide Prestakuntzako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzea galarazteko moduan, epaimahaiko buruak, interesdunari entzun ondoren, hautagaia hautaprobatik kanporatzeko proposamena egingo du.

2.5.– Hautagaiek eskabidean ematen duten informazio guztia zein hautaketa-prozesu honi buruzko datuak Trafiko Zuzendaritzak tratatuko ditu eta «Gidari-eskolak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko ditu. Horren xedea da Eskola Partikularretako Zuzendariaren Gaitasun Agiria lortzeko hautaketa-prozesuaren tramitazioa erraztea.

Xede horren oinarrian interes publikoa dago, baita Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean jasotako lege-betebeharra betetzea ere.

Hautatzen diren pertsonen buruzko datuak gordeko dira espediente horiek gordetzeko egutegiak ezartzen duen denbora-tartean zehar. Hautatu gabeko pertsonen buruzko datuak hautaketa-prozesua amaitu ondoren ezabatuko dira. Interesdunek datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak, eta tratamendu automatizatuan baino oinarritzen ez diren erabakiak jasan behar ez izateko esku-bidea ere erabili ahal izango dituzte, hala dagokionean, Trafiko Zuzendaritzaren aurrean, helbide honetan: Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Hirugarrena.– Eskabideak.

3.1.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

3.1.1.– Epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.1.2.– Aurkezteko modua.

Proba honetan parte hartu nahi dutenek Interneten bidez egin ahal izango dute eskabidea, eta, horretarako, eskabide-eredu bat bete beharko dute, helbide elektronikoa honetan egongo dena: www.trafikoa.eus

Internet bidezko eskabidea Eusko Jaurlaritzaren KZgune zentro publikoen bidez egin daiteke. KZguneen zerrenda eta kokapena helbide elektronikoa honetan ikus daitezke: www.kzgunea.eus.

3.2.– Eskabidearen edukia eta ondorioak.

Izangaiek, dagokion hautaprobarako onartuak izateko eta bertan parte hartzeko, eskabideko atal guztiak bete behar dituzte eta tasa ordaindu. Era berean, zinpeko aitortzea edo promesa egin beharko dute, proba honetan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela.

Izangaien batek ez baditu tasak ordaintzen eskabideak aurkezteko epearen barruan, prozeduratik kanpo geratuko da, 2.1. atalean prozesuan onartua izateko eskatzen den baldintza ez betetzeagatik. Hala eta guztiz ere, ordaindutako zenbatekoa okerra izanez gero, errekerimendua egingo zaio izangaiari, hamar egun balioduneko epean zuzen dezan okerra.

3.3.– Eskabideak aurkezteagatikoko tasak ordaintzea.

Deialdi honek 2.1 oinarrian aurrez ikusitako baldintza betetzeko, eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko da tasa, erakunde hauen edozein sukurtsaletan ordaindu ere: Kutxabank, Laboral Kutxa, BBVA, SabadellGuipuzcoano, CaixaBank, Bankoa, Banco Santander eta Bankia, edo beste erakunde batzuen txartelak.

Tasa ordaintzeko, bi aukera daude:

– Lineaz kanpoko ordainketa: aipatu diren erakunde finantzario laguntzaileen bulego-sarearen edozein puntutara joatea eta sistemak emandako ordainketa-gutuna aurkeztea. Ordainketa-gutu-

nak barra-kodea duenez, kutxazain automatikoaren bidez ordain daiteke, kutxazainak irakurketa optikoa edo datuak eskuz sartzeko aukera bada.

– Lineako ordainketa: banku-sukurtsalera joan gabe, banka elektronikoaren sistemaren bidez ordaintzea, betiere aipatutako erakunderen batean banka elektronikoaren bezeroa izanez gero. Modalitate hori eguneko 24 orduetan erabil daiteke.

Hau da tasa horren zenbatekoa: 45,96 euro.

Tasa ordaintzen ez bada edo ordaindutako zenbatekoa okerra bada, oinarri hauen 3.2 atalean zehaztutako ondorioak etorriko dira. Nolanahi ere, tasa ordaintzea eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango; izan ere, eskabidea osorik eta behar den epearen barruan aurkeztu behar da, 3.1. oinarriak dioenaren arabera.

Eskatutako tasa kasu honetan bakarrik itzuliko da: zerga-egitatea gauzatzen ez denean subjektu pasiboari ezin egotzizko arrazoiengatik; horrenbestez, ez da tasarik itzuliko hautaketa-prozesutik kanporatzea gertatuz gero interesdunari egozteko moduko arrazoiengatik. Kanporatzea gertatzen bada deialdian eskatutako betekizunak ez betetzeagatik edo agiriak ez aurkezteagatik, ez da itzuliko tasa.

Laugarrena.– Hautagaiak probarako onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, epaimahaiko buruak ebazpena emango du, eta onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda onartuko. Behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamaziorik aurkeztu nahi izanez gero, ebazpen horretan zehaztutako epearen barruan aurkeztu beharko dira.

Epaimahaiak alegazioak aztertu ondoren, halakorik bada behintzat, Epaimahaiko buruak ebazpen bidez argitaratuko du hautapropa egiteko onartuen behin betiko zerrenda, eta, horrekin batera, proba non, zein egunetan eta zein ordutan egin den adieraziko du.

Inoiz ikusi edo detektatuz gero norbaitek ez dituela betetzen ebazpen honetan eskatutako betekizunak, errekerimendu hau egingo zaio: hamar laneguneko epearen barruan zuzen dezala okerra edo aurkez ditzala beharrezko agiriak.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada aurreko paragrafoan finkatzen den epearen barruan, edo dokumentazio hori eta aurrekariak arteztuta ikusten bada dena delakoak ez dituela betetzen ebazpen honetan eskatutako baldintzak, alegaziorik bada aztertu eta dagokion ebazpena emango da: litekeena da pertsona hori deialdi honetatik kanpo geratzea, hargatik eragotzi gabe onartzeko eskabidean egindako faltsutasunen ondoriozko erantzukizuna.

Eskabidean edo proban zehar egitatezko errakuntzarik edo errakuntza materialik edo aritmetikorik ikusiz gero, edonoiz konpon daitezke, ofizioz edo interesdunak eskaturik.

Bosgarrena.– Probaren garapena.

Onartutako guztientzako egingo da proba, deialdi bakarrean, Vitoria-Gasteizen.

Proba honelakoa izango da: emandako inprimakian idatziz erantzun beharko zaie berrogei galderari gehi erreserbako lauri. Galderak deialdi honen seigarren oinarrian zehaztutako programako gaietako buruzkoak izango dira. Galdera bakoitzak bi edo hiru erantzun alternatibo izango ditu, eta euren bat bakarrik izango da zuzena.

Probaren iraupena: minutu bat galdera bakoitzeko.

Proba etengo zaio, eta ez-gai kalifikazioa deklaratu, proban zehar ordena nahasten duenari edo proban iruzurra edo iruzur-ahalegina egiten duenari, darabilen modua edo prozedura edozein dela ere.

Parte hartzaileak hauetako batekin azaldu beharko dira probara: indarreko NANA edo bizileku-txartela edo identitate-txartela, edo, halakorik ezean, pasaporte. Dokumentu horiek aurkeztea eska diezaioke epaimahaiak proba egiten ari den edonori, eta dokumentu horiek ez aurkezteak hau ekarriko du: proba egitera ez onartzea eta prozesutik kanpo uztea.

Seigarrena.– Programa.

Hau da probarako programa:

1.– Gidariantzako Eskola Partikularrak erregulatzeko araudia.

2.– Gidarien eta ibilgailuen izapidetze administratiboa.

3.– Enpresak antolatu eta kudeatzeari buruzko ezagutza orokorrak eta haiek gidariantzako eskola partikularrei aplikatzea.

4.– Antolakundeen psikologia.

Proba horretarako programa zehatza gai eta guzti adieraziko du epaimahai kalifikatzaileak informazio-ohar baten bidez aurrerapen nahikoarekin.

Zazpigarrena.– Kalifikazio-sistema.

Probako kalifikazioak gai eta ez-gai izango dira.

Gai deklaratu izateko, erantzun zuzena eman beharko zaie proba osoaren 40 galderetatik 34ri.

Proba hori gainditzeak, hain zuzen ere, Gidariantzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria lortzea eta ematea oinarrituko du, Gidariantzako Eskola Partikularren Erregelamendu Erregulatzaileraren onesten duen 1295/2003 Errege Dekretuaren 47. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

Zortzigarrena.– Proban lortutako kalifikazioen zerrenda.

Proba kalifikatutakoan, gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Zerrenda hori behin betiko bihurtuko da alegazioak aztertu ondoren, halakorik aurkezten bada.

Bederatzigarrena.– Informazioa.

Deialdian jasotako informazioaz gain beharrezko eta osagarri diren beste informazio batzuk honako hauetan jaso eta emango dira ezagutzera: onartutakoan, bazter utzitakoan eta proba gainditu duten hautagaien zerrendetan hain zuzen ere. Informazio horiek Internet-eko helbide honetan argitaratuko dira: www.trafikoa.eus

Hamargarrena.– Errekurtsoak.

Epaimahaiaren behin betiko ebazpenen eta izapide-egintzen aurka –azken horiek gaiaren funtsari zuzenean edo zeharka eragiten badiote eta deialdian aurrera egiteko ezintasuna badakarte edo legezko interesei edo eskubideei kalte konponezina badakarkie–, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute Trafikoko zuzendariaren aurrean, haiek argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik harako hilabeteko epean. Hori guztia Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoaren arabera.

Era berean, interesdunek beren interesak defendatzeko komenigarritzat jotzen duten beste edozein errekurto jar dezakete.

Hamaikagarrena.– Kalifikazio-epaimahaia.

11.1.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoetarako xedatutakoarekin bat jardungo du kalifikazio-epaimahaiak. Hala, ebazpen hau interpretatzeko orduan planteatu daitezkeen zalantzak eta gaiak ebazteko, behar duen adina aldiz bilduko da.

Epaimahaiari dagozkio, batetik, probak garatu eta kalifikatzea, oinarri hauek aplikatzerakoan sortzen diren dudak ebaztea bestetik, eta, azkenik, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan zer egin behar den ebaztea. Epaimahaiak bilkura bakoitzaren akta egingo du.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, hau izango da Epaimahaiaren egoitza:

Gidarietzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria lortzeko Epaimahaia.

Trafiko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Honakoak izango dira kalifikazio-epaimahaiko kideak:

Lehendakaria: M.^a Victoria Dueñas Beltrán de Heredia andrea.

Ordezkoa: Ander Hormaetxe Azumendi jauna.

Bokalak:

M.^a Jesús Iturralde Arriaga andrea.
Carolina Fernandez Santos andrea.
Naiara Molinuevo González andrea.

Ordezkoak:

Iñaki Eguiara Garay jauna.
M.^a Victoria Fernández García andrea.
Elisabeth Navarro Lizarralde andrea.

Idazkaria: M.^a Esther Montes Pereda andrea.

Ordezkoa: Idoia Berasain Teruelo andrea.

Gainera, epaimahai kalifikatzaile horretako kide izango dira Gobernu Zentraleko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari hauek:

Titularra: Justiniano Redondo Bermejo jauna, Arabako Trafikoko probintzia-burua.

Ordezkoa: Esther Martín Jiménez andrea, Bizkaiko Trafikoko probintzia-burua.

11.2.– Hautaprobaren kalifikazio-epaimahaian parte hartzea honela ordainduko da: Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari gisa parte hartzen dutenei ere araudi bera aplikatuko zaie.

Hamabigarrena.– Gaitasun-agiria ematea.

Proban gai kalifikazioa lortzen dutenek tasa hau ordaindu beharko dute: Gidarietzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria emateari dagokiona.

Hamahirugarrena.– Azken xedapena.

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Segurtasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. eta 48. artikuluekin lotuta 112.1 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 17a.

Trafikoko zuzendaria,
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA.